



GURE PILOTARIEK FINALAK JOKATUKO DITUZTE

Zazpi-Itturri, Aurrera-Saiaz eta Aurrera elkartekoak Gipuzkoako Probintzietan eta Nafar Jokoetan ariko dira >7

info

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

**Ostirala
2008-12-19**

VIURTEA 1.588.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Carlos Rioba, Andoni Iturzaeta eta Guadi Larrarte. I. TERRADILLOS

Napoleonek gurean utzitako arrastoa bildu dute 'Bayoneta'-n

TOLOSA Aldizkariaren lehen alea bihar kaleratuko dute; duela 200 urte gertatutakoa biltzen du 4

IKER OTERMIN
LIBURUAREN ITZULTZAILEA

«Sozialismoaren
ideia ez dela
utopia erakusten
du Leninek»

TOLOSA 'Estatua eta Iraultza'
liburua itzuli du eta bihar
goizean aurkeztuko du 3

**1939 eta 1980
urteen bitarteko
euskal
mendizaletasuna
hizpide, gaur**

IBARRA Antxon Iturriza
mendizalearen orduerdiko
ikus-entzunezkoa izango
da Kultur Etxean 6



Jantzi dotore, jantzi hitza.

zirak
elastikoak
jertseak
fularrak
buffak...

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



La Caixa, Udaleko eta Ingurumen Zentroko ordezkariak, aurkezpenean; bisita gidatua egin zuten. I. TERRADILLOS

BASOEN BEHARRAZ SENTSIBILIZATZEKO

TOLOSA 'Basoa' izeneko erakusketa zabaldu zuten atzo Aranburun, La Caixa Fundazioak sortuta eta Ingurumen Zentroak bultzatuta 5

TXARIBARI

**HAUR
ANTZERKIA**



**Abenduak 20
Larunbata,
17:00etan
Villabonako
Gurea Antzokian
Prezioa: 4€**

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kexak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**'Gabonak eta kontsumoa' ekitaldia**

Iragan den abenduaren 11n, Villabona - Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako Haur Hezkuntzako 5 urtekoek, Tolosako Ingurumen Zentroak antolatutako *Gabonak eta kontsumoa* ekitaldian parte hartu zuten.

Eraztun Magikoa izeneko txotxongilo emanaldia ikusi zuten eta ondoren materialak birziklatuz *Txerri txoaren* (eltzeitsua) eskulana egin zuten.

Jesusen Bihotza ikastola

Trafiko neurri berriekin askoz hobeto

Beno, biala bi norabidetan dago astelenetik eta ustet erabaki zuzena izan dala. Izan ere, orain askoz hobeto doa herria eta behintzat ez da N-1 errepidera atera behar herria zeharkatzeko.

Hala ere, eta oraingo erabakia- ren alde nagoela azalduz, esan nahi dut ez zaidala gustatu, kaletik entzun dudana, hau da, zergatik aldatu duten norabidea. Ez dakit egia ala gezurra den baina beti be-

zala tarteko politika arrazoiak dau- de. Irakurtzen duenak hau jakingo du zertaz ari naizen.

Zer pasatzen zaio Udal honi? Herriarren ahotza entzuteko ka- paza ez dela eta bere alderdiko in- teresengatik edozer egiteko prest dagoela? Gustatuko litzaidake be- netan egia jakitea, baina argi dago hori ez dela inoiz aterako...

Iñaki (Tolosarra)

Trafiko arazoak Ibarako kale mugosian

Nazkatuta nago jada. Ibarako Euskal Herri kalekoa ez da norma- la! auto guztiak doble filan daude! jendeak ogia erosteko, farmaziara joateko, pote bathartzeko... kotxea doble filan uzten du hantxe eta kristoren arazoak sortzen dira ka- lean. Benetan harrigarria da gaine- ra!! nahiz eta tokia egon aparkatze- ko jendeak nahiago izaten du ma- niobrari ez egin eta kotxea errepidearen erdian uztea. NOSKI herriko udaleko langileek zerbait egin beharko luketela, baina nire ustez, lehenik eta behin bakoitzak hausnarketa egin beharko luke; beharrezkoa al da ogia erostera jo-

ateko kotxea hartzea? ezin al dut pixka bat gehiago ibili eta kotxea leku apropos batean utzi?? auto- kritika pixka bat mesedez!!!

Eneko

Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka

Durangoko Euskal liburu eta dis- koen Azoka izan naiz aurtan ere, eta noski, liburuak eta diskoak erosteko aprobetxatu egin dut: li- buru klasikoak, betikoak, apalate- gietan falta ezin direnak... Denetik ia. Betikoa da, baina ez zait irudi- tzen erdaraz egindako produk- tuak hor onar daitezkeenik, ez behintzat euskarazko produktuen maila edo leku berean. Euskaraz egindako produktuei bultzada emateko helburuarekin eta ezagu- tzeraz emateko helburuarekin ez zen hasi azoka hau? Hala bada, zentzua ia guztiz galdu du.

Ez dut esaten Euskal Herrian gaztelaz egindako produktuak ez direnik ezagutzera eman behar, baina ez zait iruditzen. Durangoko Azoka egokiena denik. Horrela ez dut uste irakurzaletasuna eus- karaz sustatzea lortzen denik...

B Blogteka**Gabonak eta kontsumoa**

Iritsi dira Gabonak, hainbeste de- siratutako jai egunak. Atsedena, fa- miliarteko otorduak, turroia, opa- riak, ... kontsumoa, kontsumoa!!

Hirugarren ikasturtez, kontsu- moaren gaia lantzen ari gara Esko- lako Agenda 21en bitartez (orain- goan Ekitate Falta izenburupean), hondakinak murriztu, kontsumo arduratsua burutu eta ekitatearen aldeko jarraitasunak sustatzeko.

Horregatik, eta Gabonak gehien kontsumitzen dugun garaia direla kontuan hartuz, zera eskatu nahi genuke, saia gaitzen ikastolan bultzatzen ari garen jarrera hauek etxean sendotzen, zuen seme-ala- bek mezu kontrajarriak jaso ez di- tzaten.

Gabon zoriontsuak izan eta neu- rriz kontsumitu!!

Laskorain ikastolako Inguru- men Batzordea.

Laskorain ikastola

[http://www.tolosaldekohitza.info/ blogak/laskorain](http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain)

Geure teiltatuaren gainean ha- rriak...

Gorka

Krisia... Eguberrietan ere?

Nire familiak negozio bat du eta nahiko preokupatuta gaude, egia esan, salmentak oso gaizki dijoaz- telako. Entzun dut Eguberrietan salmentak ondo dijoaztela, baina egia al da? Negozio gehiago dute- nek idaztea gustatuko litzaidake. Milesker.

Eneritz

K Kirol jarduera**Bihar****Areto futbol**

■ Usabalgo goiko kantxan 12:00etan II. Adiskidetasun Txa- pelketarren finala: Rumania - Eus- kadi; aurretik, 10:30ean, hirugarren eta laugarren postuak lehiatuko dira.

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, Laskorain-Astraburu- ko.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan 18:00etan, Bide Bide Ibiza- Goierri.

■ Usabalgo beheko kantxan, 10:30etik aurrera, infantilak, nes- kak: TAKE A- Iragaz; ondoren, mu- tilak: TAKE A- BKL.

■ Usabalgo beheko kantxan,

12:00etan, kadeteak,

mutlak: TAKE Tovar-Ordizia.

■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, jubenilak: TAKE- Ordi- zia.

Mahai tenisa

■ Usabalgo gymean mahai tenisa 16:30ean.

Igeriketa

■ Usabalgo igerilekuan ur azpiko probak lehiatuko dira, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

Futbola

■ Berazubiko futbol zelaian, 16:30ean Gazteen Nazional Maila Tolosa CF-Indartsu.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infantil txikiak: Tolosa CF- Eibar.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, kadeteen Lehen Maila: Tolosa CF-Aretxabaleta.

Etzi**Areto futbol**

■ Usabalgo goiko kantxan 12:00etan, jubenilak: Laskorain- Orixe.

Hilak 22, astelehena**Pilota**

■ Beotibarren, 16:30ean Esku pilo- ta profesionale partidak: Bengoe- txea VI-Mendizabal Berasaluze VIII-Beloki.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



SULEGOAK: Andoain • Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) • Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) • Pasala
Tolosa (Bellatokia)

«Sozialismoaren ideia ez dela utopikoa erakusten du Leninek»

IKER OTERMIN » 'Estatua eta Iraultza' liburuaren itzultzailea

Tolosa » Vladimir Leninen 'Estatua eta iraultza' lana euskaratu du Oterminek, eta bihar goizean aurkeztuko du lana.

ESTI EZEIZA

Iker Oterminek Leninen *Estatua eta Iraultza* liburuaren euskaratu du. Argitalpena 1917ko abuztu eta iraila artean idatzia dago, Errusiako Urriko iraultzaren bezperako egunetan. Bihar aurkeztuko dute itzulpena, 11:00etan, Engels Ate-
ne egoitzan.

Nondik sortu zen liburu hau euskaratzeko ideia?

Material gutxi dago euskaraz, eta ikusi genuen, norbaitek egin behar bazuen euskaratze lan hori, guk izan behar genuela. Hori dela eta, baliabide gutxi izanda ere, lan horretan hasi ginen, Marxen *Manifestu Komunistarekin*, eta orain beste bi argitaratu ditugu.

Liburu hau euskaratzean, zer da ikasi duzuna?

Horrelako liburu bat euskaratzea ez da erraza. Baina garrantzitsue-
na daliburuaren esanahia ongi ulertzea, eta agertzea. Bestalde, gure helburua zen, euskara erraz baterabilteza, hau ez baita literatu-
ra bakarrik. Filosofia eta politika hor sartzen dira. Edozeinek irakurri ahal izateko moduan idatzi dugu.



E. EZEIZA

1917an kokatua dago liburu, antzekotasunak ba al ditu garai hark, orainarekin?

Hori da liburuaren harrigarriena. Ikustea, zenbat antzekotasun dau-
den, idazleak liburuan agertzen duenaren eta gaur egunean bizi dugunaren artean. Liburuan idaz-
lea saiatzen da Parisko komun-
en iraultzan eman zen desitxuratzeko guztia argiratzeko. Egun, egoera berean gaude, Errusiako iraultza-
ren inguruan nahasketa handiak eman dira, eta baita marxismoaren ideien inguruan ere. Azken batean, egoera berdina da. Bestalde, 1917a ez da Errusiako iraultza eman den urte bakarrik. Garai horretan, Eu-
ropa guztian ari baitzen iraultza-
ren gogo hori harrotzen. Egun be-
rriz, ikusten dugu, Latinoamerika, AEB, eta Europa guztian harrotze berdina ari da gertatzen, honen-
bestez, erreformismoa eta marxis-
moa borroka berdinean ari dira.

Krisi garai honek ba al du eraginik harrotze horretan?

Leninek ongi azaltzen du libu-
ruan. Erreformismoaren oinarria da, hazkuntza ekonomiko batek sortzen dituen ilusio eta itxarope-
nena. Hauek memoria oso laburra dute, eta esperientzia historiko guztiak ahaztu egiten dituzte, tar-
tean, hazkunde ekonomiko baten ondoren, krisi sakon bat etortzen dela. 90. hamarkadan ikusitako prozesua antzekoa izan zen, So-
biatar Batasuna erortzean, erre-
formistak eta kapitalistak hitz ematen hasi ziren, hazkunde eko-
nomiko etengabea egongo zela... Garai horretan, marxisten ahotsa oso txikia izan zen, eta lan gogorra egin zuten, baina orain ikusten da, borroka zahar bat berriro azalera-
tu dela.

Zer da liburu honetatik gehien erakartzen zaituen?

Niretzat liburu hau oso garrantzi-
tsua izan da, horregatik nuen eus-
karatzeko gogo. Leninek frogat-
zen du sozialismoaren ideia ez dela utopia bat. Sozialismoan ba-
daukazu ongizate sozial etengabe bat eta hazkundea lortzea. Bestal-
de, oso ongi definitzen du, utopia-
rik gabe, sozialismoa nola den po-
sible. Azken batean, normalean esaten digute sozialismoa utopi-
koa dela, baina inork ez du zergai-
tia azaltzen.



Etorikinen zalantzak argitzeko gune

TOLOSA » Etorikinen Nazioarteko Eguna harira, Abdoulaye Gueye Cari-
tas Gipuzkoako abokatuak hitzaldia eskaini zuen herenegun, Kultur Etxean. Atzerritar Legea eta bestelakoen zalantzak argitzeko espazioa izan zen hura. Gaur berriz, Idoia Sanchez ipuin kontalariaren emanaldia izango da 17:30ean, Sartu Ta Sortu arte tailerrean. Honetaz gain, toki be-
rean, 18:00etan, Ipuinartean sormen tailerra izango da Naiara Delgado eta Txitxi Orbegozorekin. I. TERRADILLOS



Gabonei ongietorria, musikarekin

ALEGIA » Loatzeko Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eska-
ni zuten atzo arratsaldean, Kultur Etxean. Ikasturtean zehar ikasitako gurasoei, lagunei, eta kideei erakusteko aukera izan zuten musikari txi-
kiek. Atzoko saioaren ostean, oporrak hartu dituzte gaztetxoek, eta urta-
rilean ekingo die berriro eskolei. TXARLU GESTEIRA

Ohiturari jarraituz, Eguberrietako kontzertua eskainiko du Orfeoiak

Tolosa » Hilaren 23an, Bachen Oratorioa eta Gabonetako kantuak interpretatuko dituzte Leidorren, Concerto Orkestrarekin batera.

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoiak Eguberrietako Kontzertua eskainiko du datorren astelehenean, hau da, abenduaren 23an. 20:30ean hasiko da emanal-
dia, eta Leidor Antzokian izango da. Ignacio Ruiz de Alegriaren mu-
sika zuzendaritzapean jardungo dute, Iruñeko Concerto orkestra-
rekin batera. Bertan parte hartuko dute, era berean, Amaia Arberas eta Marife Nogaes solistek; hurre-



'El Caserio' izan da Orfeoiak Tolosan eskainitako azken emanaldia. NEKA

nez hurren, soprano eta kontral-
toa. J.S. Bachen Oratorioaren zati batzuk eta Eguberrietako herri kantak interpretatuko dituzte saioan.

Sarrerak dagoeneko salgai dau-
de, eta hauek Tolosako Leidor antzokiko leihatilan eta interneten eskuratu daitezke. Kutzaren


webgunean edo www.generaltickets.com delakoan. Sarreraren sal-
neurria 10 eurokoa da.

Urteroko ekitaldi honen aban-
tailatoko bat da doan dela bazkide partikularrentzat eta enpresen-
tzat, Tolosako Orfeoiarentzat ematen duten diru laguntza dela eta. Hain zuzen ere, sarrera bana

daukate jasotzeko Leidorko leiha-
tilan, Tolosako Orfeoitik bidali den eskutitza erakutsiz.

Hamar urte bete ditu aurtan To-
losako Orfeoiak. 1998ko ekainean Leidor opera estreinatu zen. Ga-

arrantzia handiko obra hau antzez-
teko kalitatezko koro bat behar
zen eta une horretan Tolosako
abesbatzak ez zeuden prest
proiektu horri aurre egiteko. He-
rriko korista eta musikari guz-
tiek obra eszenikoan parte hartze-
ko gonbidapena jaso zuten; azkenean
berrogeita zortzi kantariz osatutako
abesbatza sortu zen. Leidor,
Eresoinka eta Abeslari Lagunak
abesbatzetako kideekin osatutako
koruak «arrakasta» lortu zuen
Mokoroaren operarekin.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Napoleonek gurean utzitako arrastoa argitara

Kultura » 'Bayoneta' aldizkariak Tolosan garai haietan bizitakoak kontatuko ditu; lehen alea bihar izango da kalean.

INIGO TERRADILLOS

Aldizkari berri bat izango da laster kalean, baina gaur egungo albisteak eman ordez, historian atzera egiteko aukera izango da, eta Tolosan duela 200 urte gertatutakoak kontatuko ditu. *Bayoneta* izena jarri diote aldizkari berezi honi, eta lehen alea bihar zabalduko dute kalean.


Udal artxiboko datuak herritarren artean ezagutaraztea izan da ekimen honen helburua, eta zehatzago izateko, 1808 eta 1813 urte artekoak, hau da, Napoleonen guduak buruzkoak. Udal Artxiboan atzo eginiko aurkezpenean, Guadi Larrarte artxibozainak esan bezala, «Artxiboko urte horietako datu historikoak oso aberatsak direnez, hauek zabaltea izan da asmoa». Hala, bertan lortutako datuak lan-

du dituzte, udal aktetakoak batez ere, testuinguru historikoan jarri eta «garaiko itxura duen aldizkari edo gazeta formatoa eman nahi izan diogu». Euskaraz eta gazte-leraz aterako dute, biak era garaiko hizkuntza eta grafiek.

«Zabalduko beharreko informazioa zegoen»

Udal artxiboarekin batera, Eusko Ikaskuntza eta Zehazten enpresa daude proiektu honen atzean. Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak azaldu bezala, «Tolosak urte horietan uste baino garrantzi handiagoa izan zuen, eta horregatik kultur departamenduan ikusten genuen zabaldu egin behar zela hori nolabait herritarren artean, eta lan honekin aurrera jarraitzea interesgarria iruditu zitzaigun».

Bestalde, Zehazten enpresako Carlos Rilova historialariak proiektua nola eman duten aurrera azaldu zuen: «Artxiboaren eta Udalaren laguntzarekin urte haietako dokumentuak aldizkarian bihurtu ahal izan ditugu. 1808-1813 urteetako Tolosako gertaki-



Carlos Rilova historialaria, Andoni Iturzaeta kultur zinegotzia eta Guadi Larrarte artxibozaina, atzo, aurkezpenean. I.T.

XI. elkartasun krosa san silvestre

distantziak

15:30H benjaminak	800 m
16:00H alebinak	1600 m
16:30H infantilak	2900 m
16:30H nagusiak - neskak eta mutilak	5050 m

sariak

16:30H benjamin, alebin eta infantilak kamisetak edo karpeta denentzat, eta garaikurrak...

17:30H nagusiak eta beteranoak - sariak, garaikurrak, polikrodegiko bonoak eta 2 kirol-medikuntza azterketa

izenematea

Abenduaren 15etik aurrera, ARALAR KIROLAK dendan. Eta egun berean ZERKAUSIAN.

Helduak aurrez 5 euro, egunean 8 euro (oparia: kamiseta lehenengo 300entzat)

Haurrak DOHAN

Elkartasun krossa honetan jasoko den dirua, Guabasken errekaren inguruko proiektua bultzatzeko erabiliko da, beraz Kolonbiara bidailiko da. Honetarako, diru bilketa egingo da egun berean

abenduak 31 arratsaldeko 15:30etan ZERKAUSIAN

oria

guabask

zunak hartu ditugu kontuan, eta horiek era sinplean, eta noski, laburtuan aldizkarira pasa ditugu». *Bayoneta* aldizkariak sasoi haietan egiten ziren publikazio klandestinoak irudikatu nahi ditu. Hala, *Bayoneta*-ren jabeak Napoleoni buruzko kontuei buruz eta hari buruz pentsatzen duenaren inguruan idatziko du, jakinik asko arriskatzeko delahori era klandestinoan eginik, eta hain zuzen ere, hori jakinda zergatik egiten duen azalduko du bere lerroetan. «Nahiz eta ipuin itxura izan, doku-

mentaturiko gertaeretan dago oinarritua, izan ere, jendeak garai hartan Tolosan gertatutakoak ezagutzea lortu nahi dugu».

Jendaurrea era bitxian

Lehendabiziko alea bihar goizean kaleratuko dute, Gabonetako Azoka Berezian, eta ekimena bera bezala, era berezian egingo dute aurkezpena edo banaketa. Hurrengo urteetan, 2013ra arte, urtero beste hiru ale ateratzeko asmoa dute, eta horretaz gain, Udalaren webgunean ere zintzilakutuko dituzte.

2 sarrera pare


zozketan!

Poxpolo ta Mokolo
eskainitako

Mekatxis Mariatxi
haur ikuskizunerako

irabazleak:
Juan Jose Ruis (Tolosa)
Angel Oruesagasti (Amezketza)

Larunbata, abenduak 20 • 17:00tan • Tolosako Leidorren



5 sarrera pare

zozketan!

Vaiven
ekoizpen etxeak eskainitako

Inalanbrikak
haur ikuskizunerako

irabazleak:
Jose Ramon Zubeldia (Baliarrain)
Alazne Lasa (Irura)
Amaia Goikoetxea (Bedaio)
Miguel Angel Mendieta (Altzo)
Juan Carlos Otero (Anoeta)

Ostirala • abenduak 26, 17:00tan • Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.

tolosako

gabonetako azoka berezia abenduak 20

EUSKADI

2008

Basoak kontserbatzearen beharraz sentsibilizatzeko

Gizartea. » La Caixa fundazioak sortu du 'Basoa' erakusketa, eta Aranburu jauregian egongo da, urtarilaren 18ra arte.

ERREDAKZIOA

La Caixa fundazioaren Gizarte Ekintzako Ingurumen eta Zientzia programako sorkuntza berria den *Basoa* erakusketa zabaldu dute Aranburu jauregian, eta urtarilaren 18ra arte izango da ikusgai. «Basoak kontserbatzearen beharra» zabaldu nahi duen ekimen hau Tolosako Ingurumen Zentroaren eskutik dator, «Tolosako Ingurumen Departamentuarekin jasangarritasunari buruzko gaiak dibulgatzeko duen konpromisoari lotuta».

Hiri batetik bestera dabilen erakusketa honek Tolosan egin du, beraz, geldialdia. Antolatzaileek esan bezala, «bertan geratzearren arrazoiak, Tolosako Ingurumen Zentroak eta Udalak egiten duten esfortzu zein kudeaketa onean dago, eta batez ere, erakusketa hauek izan ohi duten kalitateak eta interaktibitateak erakartzen duten bisitari kopuru handiak bultzatzen gaitu horretara».

Bost ataletan banatua

Erakusketa osoa elebiduna da, euskaraz eta gaztelaniaz eta bi helburu nagusi ditu: batetik, basoak kontserbatzeko beharraz kontzientziaztea, eta bestetik, baso bat bere kontserbazioari kalte egin gabe, kudeaketa jasangarria aplikatzu, ustiari daitekeelako mezua zabaldu nahi du.

Bestalde, bost atal tematikotan banatzen da eta hauen edukien kontzeptu orokorrak hurrengoak dira: Basoak biodibertsitate handiena duten planetako lur ekosistemak dira; Planetaren natur orekarako oinarriak diren funtzio

ekologikoak betetzen dituzte eta baliabide ekonomiko anitzen iturri dira; Espainiako zuhaitzien azalera 14.732.247 hektareakoa da, eta kontuan hartuta azalera osoa 50.595.505 hektareakoa dela, basoek lurraldearen %29 okupatzen dute; Basoa ez da zuhaitz multzo bat, baizik eta hauek nagusitzen diren ekosistema bat, hain zuzen, ekosistema konplexu bat, non hura osatzen duten elementuek (zuhaitzak, zuhaixkak, animaliak, onddoak, bakteriak eta abar) zeregin garrantzitsua duten elkarri eraginez.

Esan bezala, 2009ko urtarilaren 18ra arte dago erakusketa zabalik. «Erakusketaren kalitatea ikusita eta Tolosaldea Tourren laguntzari esker, hasiera batean aurreikusia zegoena baino egun gehiagotan irekitzea erabaki genuen», azaldu dute. Horrela, astegunetan eta eskoletako ordutegi eta egutegian, antolatutako talde-

Bisita gidatuak izango dira taldeentzat; gainerakoek arratsaldero bisitatu ahaliko dute

kin bisita gidatuak eskainiko dituzte doan, aldezturik 943 65 25 44 telefono zenbakira deituta.

Herritarrentzat, berriz, astelehenetik larunbatera arratsaldero irekita egongo da erakusketa, astelehenetan 16:00etatik 19:00etara eta gainerako egunetan 17:30etik 20:30era, baita igande goizetan ere 10:00etatik 14:00etara. Gainera, 29an eta urtarilaren 5ean, goizez ere publiko orori irekita egongo da (09:30etik 13:30eta).

Gabonetan bertara joateko asmoa dutenek kontuan hartu behar dute, abenduaren 24an goizez bakarrik zabalduko dutela, eta abenduaren 31n eta urtarilaren 1ean eta 6an itxita izango dela Aranburu jauregiko erakusketa.



Aranburu jauregian ikusgai dagoen *Basoa* erakusketaren atal bat. I.T.



Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu



Baita Bidezko Merkataritza ere

BERASTEGI » Pasa den astelehen eta asteartean ireki zuten Berastegin Elkartasun Azoka eta jada jende ugari hurbildu dela argitu dute antolatzaileek. Gaur, ostirala, 16:30etik

18:00etara zabalduko dute eta bihar eta etzi, aldiz, 11:30etik 13:30era. Asteburuan, gainera, Bidezko Merkataritzako produktuak erosteko aukera ere izango da. **HITZA**



Ibarra Racingen erakustaldia

IBARRA » Ibarra Kiroi Astearren barruan Ibarra Racing taldeko Koldo Alonsok, Marcos Landak eta Jon Maritxalarrek txapelketan erabili ohi duten materialen erakusketa

egin zuten atzo, herriko plazan. Jende ugari bildu zen besteak beste, Alonsoren motorra zein Landak rallyetarako eta Maritxalarren autocrosseko autoak ikusteko. **R.CALVO**

1939 eta 1980 urteen bitarteko euskal mendizaletasuna, hizpide

Ibarra » Antxon Iturriza mendizalearen orduerdiko ikus-entzunezkoa eta beste «aperitibo» bat ikusi ahal izango dira, gaur.

REBEKA CALVO

Antxon Iturriza mendizaleak, zeinak 1976. urtetik ari den mendi kronikak egiten, *Euskal mendizaletasunaren historia. 2. zatia: Piri-neoetatik Everestera. 1939-1980* ikus-entzunezkoa eskainiko du gaur, 19:30ean Ibarra Benito Izagirre kultur etxean.

Iturrizak esan duenez, ordu erdiko lana da eta bertan «Espainiako gerra zibila bukaeratik eta 1980. urtera arteko euskal mendizaletasunaren» errepasoa egiten du. Horretarako, ikus-entzunezkoak hainbat irudi historiko biltzen ditu eta baita film zaharren hainbat irudi ere: «1967. urtean Euskal Herriko mendizale talde batek Andeetara egindako espedizioaren harira egindako pelikulatxoaren irudiak

ikusiko dira, Nafarroako talde baten lehen zortzimilakoa egin zutenekoak...».

Hiru liburuetako bigarrena

Iturrizak euskal mendizaletasunaren inguruko hiru liburu argitaratu ditu -*El descubrimiento de la montaña (1848-1936)*, *De los Pirineos al Himalaya (1939-1980)* eta *Tiempos modernos (1981-2007)*- eta horietako bigarrenaren errepaso modukoa da gaur Kultur Etxean ikusi ahal izango den ikus-entzunezkoa. «Bigarren tomo hori 1980. urtean amaitzen dut mugarri bat izan zelako. Urte horietatik aurrera euskal mendizale-tasuna dibertsifikatu egin zen», argitu du mendizaleak.

Izan ere, 1980. urteko maiatzaren 14an Hermaniko Martin Zabalek Everesteko gailurrera iritsi zen Pasang Temba sherpa lagun zuela. «Everestera igo zen lehen euskalduna izan zen Zabaleta eta Euskal Herrian errepikatu ez den oihartzuna izan zuen gertakari harko», gogoratzen du Iturrizak.

Horiek horrela, urte hartatik aurrera «alpinismo oso desberdina» egiten hasi zela argitu du mendizaleak. «Globalizazio moduko bat ematen hasizen, ekintzak dibertsifikatu ziren... Hirugarren liburuan honen inguruan hitz egiten dut; 1980. urtera arte jende zehatz ibiltzen zen alpinismoan, enborra osatzen zuten, nolabait esatearren. Orduetik aurrera, berriz, adarretatik joan zen bidea, zabaltzen hasi zen bidea. Oso zuhaitz polita osatu dugu azkenean, hostotsua eta indar handikoa», argitu du Antxon Iturrizak.

AEBetako parke naturalak

Mendizalearen ikus-entzunezkoa hasi aurretik, hala eta guztiz ere, beste «aperitibo modukoa» ere gongo da Benito Izagirre kultur etxean.

Hogei bat minutu irauten duen beste bideo bat eskainiko dute eta bertan Antxon Iturrizak AEBetako parke naturalen zehar ateratako argazkiak eta informazio ugari ikusi ahal izango da.

Laburrak

Kultur Etxeko ordutegia aldatuko da Eguberrietan

IBARRA » Ibarra Benito Izagirre kultur etxearen ordutegia aldatu egingo dute Eguberrietan. Horiek horrela, hilaren 22tik 30era bitarte Kultur Etxea zein liburutegia goizeko ordutegia izango du; 09:30etik 14:00etara. Hilaren 31tik urtarilaren 6ra, gainera, Kultur Etxea zein liburutegia itxita egongo direla ere jakinarazi dute.

Ekintza ugari Jimenezen espetxeratzea salatzen

IBARRA » Orain dela aste batzuk Ibarra ezker abertzaleak salatu bezala, Goar Jimenez gaztea datozen egunetan espetxeratu dute. Zortzi hilabeteko espetxe zigorra salatzen eta gazteari babesa erakusteko herriko ezker abertzaleak mobilizazio desberdinak egingo dituela iragarri du, horietako lehena bihar goizean zehar Ibarra sarreraren egingo duten sinadura bilketa izango da.

Gipuzkoako ezker hormako nesken Txapelketa, bihar

IBARRA » Neska nagusien Gipuzkoako ezker hormako Txapelketa-Kutxa Sariko azken faseko partidak pasa den astean hasi ziren Be-labietako kiroldegian. Bihar izango dira finalerdiak; lehen taldean Su-Berri eta Real Sociedad ariko dira eta bigarren taldean, aldiz, Ikasberri eta Hernani. Zentzu honetan txartelak eskuratzeko hautagai nagusiak lehen taldeko bi taldeak dira, izan ere, Su-Berrikoak ia izaki txapeladunak dira eta Real Sociedad txapeladunordeak. Nagusien partida eta gero jubenilak ere ariko dira.

Barriolak eta Retegik bihar jokatu dute Masterreko finalaurrekoa

Leitza » Master Baskepensiones BBKko partida Labrit pilotalekuan izango da 17:00etan.

ERREDAKZIOA

Abel Barriola leitzarrak eta Eratsuneko Julien Retegi gazteak bihar jokatu dute Master Baskepensiones BBKko finalaurrekoa.

Hitzordua Iruñeko Labrit pilotalekuan izango da 17:00etatik aurrera. Gogoratu behar da, era berean, Eratsuneko Aimar Olaizolaren postua hartu berri duela, honek duen lesio baten ondorioz ezin baitu jokatu. «Masterra jokatu ari nukeela iragarri izana sari bat da niretzat», esan du Eratsunekoak, zentzu honetan.

Nafarroako bi pilotariet argi dute partida gogorra izango dela. Zentzu honetan, leitzakoak Retegi «bigarren mailako buruz buruko irabazlea» dela gogoratu du. «Bi eskuekin ematen dio ondo pilotari. Ez du inoiz oparirik eskaintzen. Larunbateko partida zaila izango da», gaineratu du.

Mailen arteko alde

Bi pilotarien mailen arteko aldeak apustu guztiak Leitzakoaren alde jarri ditu. Retegi, hala ere, baikor dago: «Aste betean ezin dut mirarik egin, baina, behintzat, partida ona egingo dudala uste dut. Ondo pasatzen saiatuko naiz, nahiz eta zaila izango den Abel oso pilotari ona delako».

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza bat alokatzen da Tolosako erdigunean. Altzari batzuk dituen bi gela dauka. Berritua dago eta igogailua du. Leku eguzkitsua dago. 650 euro hilean. 656 73 6050.
■ **Etxebizitza.** Jakan 3 logeletako etxebizitza alokatzen dut. Asteka

edo hilabeteka. Interesatuak deitu 635 750 293 telefono zenbakira.

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 708 271.

@ Eztabaida. HITZAko web gunean zeuen iritziak jaso nahi ditugu eta horretarako gure inkesta, eztabaida eta bestelako guneetan hartu dezakezu parte. Aste honetako eztabaida honakoa da: Zer iruditzen zaizu Tolosako Udalak trafikoa eta aparkatzekoan hartu dituen neurri berriak? Biala bi noranzkotan jartzea, Ronda kalean aparkaleku gehiago, Lapurdiko parkingean gauko euro bateko kostua...
www.tolosaldekohitza.info

Zazpi-Itturri, Aurrera-Saiaz eta Aurrera, hainbat finaletan murgilduta

Pilota » Gipuzkoako Probintzian daude Tolosaldekoak, eta Leitzakoak Nafar Jokoetan, asteburuan zehar.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan zehar, Gipuzkoako Pilota Txapelketako hainbat finaletan ariko dira eskualdeko pilotari asko. Zazpi-Itturrik, esaterako, bihar 10:00etan hasita Tolosako Beotibarren Gaztelekuren aurka dauka bat, kadeteen mailan binaka. Final honen ondoren, Aurrera-Saiaz bi partida jokatuko dira, aurkariak ere etxeko pilotariak izanik.

Zazpi-Itturriko seniorrak ere finaletan dira, Aurrera-Saiaz bezala. Partida interesgarria beraz, bi pilotasok jokatuko dutena. Binaka ariko dira nor baino nor, baina eskualdetik kanpo, Bergaran, hain



laz ere Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Itturriren arteko finala jokatu zuten. N.U.

zuzen (etzi 10:00etan). Aurretik, Aurrera-Saiazeko bikote batek 3. eta 4. postua jokatu du Añorgaren aurka. Seniorren mailarekin jarraituz, baina banaka, Zazpi-

Itturrik ere, final bat jokatu du gaur Zarautzen (aurkaria, Ozkarbi). Aurrera-Saiaz momentura arte 5 finalerdi jokatzera iritsi da eta aukeragehiago baditu.

Leitzako pilotariak ere «ongi»

Leitzako Aurrera pilota eskola lau txapelketatan ari da serio eta hainbat finalerdi iristea lortu du. Bihar, esaterako, eta 09:30etik aurrera hasita, Nafar Jokoa Txapelketako bi partida jokatu du Burlatan. Biak ere infantilen mailakoak izanzen dira: aurreneko partida Uharteren aurkako da eta bigarrena Zugarralderen kontrako.

Burlatako Txapelketako finala infantilek jokatu beharko dute ere, baina etzi 09:30ean hasita. Kasu Honetan Olano eta Hernandorena ariko dira.

Bihar Etxarri Aranazko finalerdi bat jokatu dute han bertan Agirre-Aristorena neskek gomazko paleta txapelketaren baitan. Mirentxu eta Enkarni izango dira arerio gogorrak.

Zaldibarren Jon Jaunarena ari da, etorkizuneko en mailan eta atzo iluntzean partida bat jokatu zuen kanpoan.

L Laburrak

Gabonetan kantatzen ateratzeko entsegua gaur

ALBIZTUR » Gabonetan kantatzen ateratzen dira Albizturren. Baina horretarako entsegu bat egitea komeni da eta ondorioz, gaur bilduko dira kantuak errepasatzeko. 20:00etan elkartuko dira Kultur Etxean, eta kantatzen, berri, hila-ren 24ean aterako dira egun guztian zehar. Bileran zehaztuko dute zertarako erabiliko den bildutako dirua eta eguneko egitaraua.

Urteko azken bi batzorde bilerak datorren astean

AMEZKETA » Astelehenean hirigintza eta obretarako batzordea eta kontuen batzorde berezia izango da 20:30ean balioanitzeko gelan, Amezketan. Industrialdeko proposamenei buruz ariko dira, Larratiz Bideko eremuko proposamenak, Landagipuzkoa 32, eraikin balioanitzeko proiektuaren diru-laguntzak eskatzea, irisgarritasun plana... jorratu ditzute. Kultura, gizarte ongizate eta ingurumena batzordea asteartean bilduko da 20:00etan. Gobernu Kanpoko Erakunde bat aurkeztuko dute eta kirol batzordea osatzearen beharraz ariko dira ere, beste gai askoren artean.

Asvinenean gaur, KATen umorezko antzezlan

ADUNA » Asvinenean Karmakros antzerki tailerra (KAT) izango da: *De medico marica y loco, todos tenemos un poco*. Gaur izango da, 22:30ean hasita. Homosexualitate, drogak... Orokorrean debekua diren gaiak umorez eta naturaltasunez antzeturiko dute komedia honetan. Eduardo Eliasena da obra eta zazpi aktore ariko dira, tartean, Eduardo Elias eta Gorka Zufiaurre.

Kantinan hilaren 26an 'Gure txokoa oroitzu'

VILLABONA » Oinkari Dantza Taldeak Kantina irekiko du Eguberrietan, Olaederra Kiroldegiko Kafetegian. Pintxo eta edariak zerbitzatzeko gain, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte hilaren 24etik 31ra bitarte. Berezien artean hilaren 26koa da: *Gure Txokoa Oroitzu* jaia. 23:00etatik aurrera lehen-go musikaz gozatzeko aukera izango da: «Honela garai bateko festa izpiritua berpizten saiatuko gara». Aurretik, hala ere, afari bat antolatuko dute 21:00etan eta 25 euro balioko du. Izena emateko 630 017 938ra deitu behar da.

Prestigezko hondamendia argazkietan ikusgai

ALEGIA » Ander Gillenea eta Josune Martinez de Albeniz argazkilariek *Galiza Beltua* erakusketa daukate ikusgai Alegiako jubilatuen tabernan. Eguberrietan ere ikusi ahal izango da, urtarilerara arte.

Bihar AHTren aurkako elkarretaratzea

Tolosa » Triangulon izango da AHT Gelditu! Elkarlanak deituta; Legorretatik Tolosarako zatia aurki lehiaketara aterako dute.

ERREDAKZIOA

Bihar 12:00etan, Tolosako Triangulon AHTren aurkako eskualde mailako elkarretaratzea egingo dute, AHT Gelditu! Elkarlanak deituta. Legorretatik Tolosarako AHTren trenbidearen zatia lehiaketara ateratzeko erabaki du Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak, eskualdean obrak hasteko aukera

gertuago izanik. Elkarlanak adierazi duen moduan «7 kilometroko distantzia eraikitze erabiliko duten dirutza izugarria iruditzen zaigu». Esaterako, Alegia eta Tolosa bitartean 3 kilometro eta 700 metro inguru daude eta 85 milioi euro beharko da hau egiteko eta lau urtetan banatuta.

«Hainbeste diru publiko erabiltzea gutxi batzuk erabiliko duten obra bat egiteko ez dugu bidezkoa ikusten: onartezina da». Gizartearen beste hainbat arazo daudela gogoratu dute elkarlanekoek: «Gazteen etxebizitzak, zaharretxe publikoak, osasungintza, euskararen normalizazioa... Nola daude?».

Alegian eta Anoetan herri galdeketa bultzatu zuen Udalak eta erantzuna ezezkoa izan zen berritan. Horiek, eskualdeko kasuei dagokionez.

Bestetik, erakundearen informazio eza salatuko dute elkarretaratzean. «Ez informatzeaz gain, eztabaida ere ukatzen da».

Alegiatik Tolosarako obrak

Alegiatik Tolosara bitartean egin nahi dituzten obrak hauek dira: 544 metroko tunel faltsu bat eta 1.500 eta 1.450 metroko beste bitunel. Horiek biek 31 eta 26 metroko tunel faltsuak izango dituzte. Horrez gain, Ikaztegieta errekanen

gainean 108 metroko biaduktu bat egingo dute.

Eusko Jaurlaritzak Beasain eta Tolosa bitarteko tramoak egiteko lau zatitan banatuko du: Beasain ekialdea, Beasain mendebaldea, Legorreta eta Tolosa. Tolosakoaren %92a estalia izango dela adierazi du Garraio sailak.

Bestalde, Europako Batzordeak atzo jakitera eman zuenez, 120 milioi euro inguru emango ditu urte amaiera bitartean, «Euskal Trenbide Sare Berria eta Europa hegomendebaldeko abiadura handiko tren ardatza egiteko». Diru horrek «proiektuari bultzada emateko balioko du».

Kirolarien ibilbideaz eta etorkizunaz

ALTZO » Atzo iluntzean, Altzoko udaletxera hurbildu zirenek Mainer Mendizabal pala jokalaria, Mikel Astarloza txirrindularia eta Aimar Irigoien harri-jasotzailea ikusi ahal izan zituzten. Euren esperientzia kirolari bezala eta hainbat bitxikeria kontatu zituzten eta galdezkaileen jakinmina asetzen. XII. Olentzerotan jakinminezerako prestatu duten egitarauaren baitangoa izan da. Gaur, zaborrei buruzko hitzaldia izango da 19:30etik aurrera udaletxean. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Irigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai
Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Zorionak!

Zorionak Ana Belen. Herrian ez hago baina bai egunero gure bihotzetan. Maite haunagu.



Urte askoan!

Alaia. Gaur 3 urte gure neskatxa politak. Zorionak eta muxu pila bat Irurako familiaren partetik.



Zorionak!

Alaia. Gaur 3 urte. Zorionak!



Zorionak!

Maialen Berasategi (Tolosa).
Zure aita, ama eta ahizpa
Izaskunen partetik.



Urte askoan!

Nahia Dominguez Iribarren.
Gaur 12 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Besarkada eta muxu handiena hitzako! Aurrera bolie!!

**DENBORALDIA AMAITU
ARTEKO ABONO BEREZIA**

	TRIKIUNA SUPERIOR	RESOLINA SUPERIOR
SEÑOR	120 €	100 €
JUV-JUB	90 €	70 €
INFANTIL	70 €	50 €
FAMILIAR*	260 €	220 €

*Aukeratu behar duzue
denbora eta txartela

*Olentzerok zoriona
ekar diezazula.
Eta saskibaloiak
bana bat ere bai.*

**ABONATU
TXARTELA**

**SAN SEBASTIAN
GIPUZKOA BASKET S.A.D.**
Anoeta pasealekua, 22- 1,
20014 Donostia
Tel.: 943 44 44 28
Faxa: 943 47 20 49
gipuzkoabasket@gipuzkoabasket.com
www.gipuzkoabasket.com

INFORMAZIOA 943 44 44 28 Paseo Anoeta 22. 1º - Donostia-San Sebastián www.gipuzkoabasket.com